



Hiru gutun Iruñetik
Patxi Zubizarreta

Gerra Zibilera itzultzea inoiz ez da erraza izaten. Badakigu-eta ipuina nola amaitu zen. Gerra (bataila?) hura galdu egin zen. Horregatik. Hala ere, batzuetan, Oroimen Historikoa osatzen duen oroitzapen kolektibo hartara itzultzea beharrezkoa zaigu.

Liburu honek horretan laguntzen digu. Baina ez da egitate-pilaketa soil bat, nobela bat baizik. Beraz, beste ikuspegi bat badago (literatura-ikuspegi bat).

Originala da (bai giro historikoan bai literarioan sartzen gaituen hasiera epistolario horri esker batez ere). Zubizarretaren euskara, beti bezala, oso koloretsua da (euskara gris eta monotonoez harantzago), eta nobelari amaiera ematen dion mendekua lagun, efektu aski ikusgarria lortzen du (protagonistaren heriotzarekin batera).

Agian, Tenientearen (Gabriel Arratibel) nortasuna bigarren atalaren hasieratik bertatik hobeto zehaztuta egotea gustatuko zitzaidakeen. Nolanahi ere, “Hiru gutun Iruñetik” eleberri interesgarria eta ongi garatua da, eta Gabrielen eta Rafaelen eskutik iristen den mendeku bikoitzaren gorespenak irakurlea gainez asebeteko duela ez dut dudarik.